

IRITZIAK

Gogoari dagokiona lendabizi ta nagusi

Ona emen euzkal-irazkintzak ukan bear duen elburu be-rezia, elburu bikaña. Gogoari dagokiona gayezko asmo guztien gañetik erabiltzea, irakastea, buzitzea, tinkotzea; aurrek txiki-txikitatik bide ori onar dezaten alegindu bear da egiazko iraz-kintzalea, ona izango dan euzkal-irakaslea, aurren gogoia ongi eratzen eta gogoari dagokion mallan yarduteko, zaletasuna so-rrerazten. Orixe egitarau ederra, orixe gaurko ontan gizarteak daraman bizia ta gerokoari buruz be giratzean bear-bearra be-zela agertzen zaigun errozko jokera.

Xede ortaz eta bigarren asmoak bezela, auetxek agertzen zaizkigu oso bearrak ere, ta lendabizi ta nagusi danari lagun egokiak izango zaizkionak: ondokoa baño lenago berekikoa ikusi ta erabilli; elburua gain-gañean eta bideak urrengo artu; na-gusia zein dan ongi oartu, bigarren malletan egon bear diran gayekin arduraz ez nasteko; kristauak geranezkero, Yainkoa' ren lege pean guzia ezarri; ta euzkaldunak izateko, euzkera-ren eta euzko-gogokoarena ezinbestekoak bezela onartu.

Ardail eta naas-maas aundiak ikusten dira gaur egun bi-ziaren azpegi askotan eta nun-nai. Ba-dakigu aur eta gazteai deadarrezko ta zalapartaka azaltzen zaizkien ekipenak, beren-tzat benetan erakarkorak izaten dirala. Orren aurrerapen aun-diak ditugun irrati ta ikusirratia, beti, berriak, berri burrun-batsuak batez ere emateko kirrikaz, baralla geitzeko bide ego-

kiak izaten dira askotan; orobat gertatzen da izparringietan, izki aundietaz marraztutako beren izparrak edatzen, eta, zer esanik ez, orma guztiak zikintzen dituzten iragarki ta idazkun guztiak agertzen.

Berebat gertatzen da, ikusirradi ta zinemak ezagun-erazten dituzten gaurko abesti ganorabakoak, jantzi bitxi ta nabarmenak, billoak apaintzea, emakume errezelea ta ororen aurrean jokatzeko lasaitasuna, bai ta oso arrunta dan biziera, eredu bezela aurkeztean. Orrela, gañera, Ludi guziko yardun-bideak nasten ari dira oso bean dagoen galga batean, guzientzako berbera ta oso berdin biurtzeko. Orra nola galtzen ari zaizkigun Erri guzien oitura bikañak eta biziera bereziak, gaurko jokera ortan itota geratzeko. Ez ote da beruntzeko jotze ori gizadi guziarentzat galtze aundi ta deitoragarria? Guk geuk orrela dala uste dugu.

Eta aurrari ta gazteari bereziki, alde guztietatik eltzen zaien ororentzat berbera dan norabide ori, guziengan kokatzen da indar aundiaz, berengan ere ondorio bereziak ateratzen (ala sartzen?); norabide ta ondorioak gogoarena ondatzeko egokienez-takoak diralarik, guziak gai-izarian eratuak baititugu.

Ukakorra da, benetan, aurkezten dugun azpegi orokar ori, oso ukakorra; egitan geron baitan nekegarria dan kezka urduria sorrerazten diguna. Nora doa jokera ortaz gizadia?, nora gure Erria?; gero ta ondorio txarragoa jasan bear-izango dan bizi-erabidera, zalantzik gabe. Ba-dirudi, gañera, jokera ori guztiz indarduna dala, guzia bere atzetik, al eta ezin, daramalla; bai, eziña dirudi orren aurka jokatzea, norabidea zuzentzea, gogo-biziarena ororen gain jartzea. Ta, alaz ere, ezinbestekoa bezela agertzen zaigu ortarako alegin aundienak egitea. Nola, baña?

Oso on eta egokiak ikusten ditugu geuk gure Erri'an xede ortaz jokatzeko ditugun bi bide auek: Yainkoa'ren gogakizuna ta Euzkalerri'ari dagokion berezko asmoa; bi xede oietan tayutu bear-izango da gure egitarau bearra ta egokiena, euzkal-biziari noraezekoa izango zaion indarra eman al-izateko.

Jakiña, Yainkoa'ri dagokion gogakizuna ez da gurean bakarrik begiratzeko, gizadi osoaren ebazkizuna dalako; baña guri

dagokigu gogoaren elburu aundi ori gurean erein, indartu ta zabalteza. Urteetan barna oso aurreratuta gagozenok oso ondo oar al dezakegu azken erdi mende ontan, azpegi ortaz, burutu zaigun aldakuntza aundia, oso auengarria dan aldaketa; baña ezin esan dezakegu, izan ere, ortaz egiazko aurrerakuntza eldu zaigula, izugarria dan atzerakuntza baño. Erri osoa oso aldatuta ikusteko aña, txarto aldatuta gañera.

Eta guzti ori zuzentzeko, ortarako egin bear dana, egundoko lana bezela agertzen zaigu. Baña zailtasun oso aundia izanarren, ezinbestekoa dala ere begiratu bear dugu; beraz, irakasle, azle ta irazkintzaleak, gurean, ikuspegi au egitzat artzen dutenak bederen, guzien jokaera bezela artu bear dute egitekoa dana; ta bearraren garrantzia ain aundia izanik, oso egokia izango litzake asmokide guzien artean ororena dugun elbururako bazkun berezia eratzea; naiz eta gure ikastoletan eta azierazko ekintza nagusietan sartzeko biderik ez izan, al diteken eragipen guzia lortzeko xedeaz ari-izateko. Orra asmo berezia.

Beste aldetik, gure Erri'ari bakarrik dagokion aldetik, ezta gutxi egin ditekena, egin bear dana. Zera ortaz, egiazkoa dan asmo ontan asteko: Gure Erri'ak bere bizi berezia du, bere gogoa ere berebizikoa dugu; Erri bezela bizi al-izateko be bizi ortaz elikatua izatea baitezpadakoa zaio, orixe, bide batez, bere eskubide ta bearra dalarik; eta euzkal-gogo orri eusteko bide bakarra euzkera dugula, argi.

Amaika bider esan bada ere, zera ontaz jarraitu bear dugu, tai gabe: aspaldidanik gurean, euzkera ta euzkalduna dan gogoa suntzitu nai-izan da arerioen aldetik eta gure Erri'an izan dan zabarkeri aundiagatik ere. Ontzat artu da, sarri, sarriegi, beti ez esateko, gure izkuntza guregandik zearo ezabatuta izan bear dala, ta izkuntzarekin, noski, euzkalduna dan guzia. Ortarako eraso-aldiak izugarriak izan dira ta guregana eldu diran irakasle ta azle guztiak batera etorri dira ortaz beti; bai ta gure-tarrak, zearo itsututa, ontzat artu dute jokera ori siñisgaitzak diran mugaetaraño gañera; ondorioa begien aurrean dugu: euzkeraren galtzea ta berarekin gure euzkal-bizia ere gero ta makalagoa biurtzea. Gure Erri'arentzat, alakotz, alde guztietatik galtze ta kalte.

Ez ote dira kalte ta galtze oien aurka jokatzeko, euzkal-

-irakasleak eta euzkal-azleak gogor jokatu bear dutenak?; asmoa ontzat ar lezaketen beste guztien laguntzarekin? Len esonatu dugun bazkunaren elburu bikaña izango litzake ori, ezpairik gabe. Eta, naitaezkoa dan norabide ortan egingo dan guzia, aurrekin egingo dan lanean berean mamitzeko; beraz, ikastoletan, elizetan, sendien baitan eta al diteken neurrian kalean ere. Euzkaldunontzat, Erria maite dutenentzat elburu yaukala.

Oso bereziki gertu bear-izango dute gurean irakasle ta azle guztiek beren burua norabide ortaz aurreratzeko. Agintariak ere, euzkal-agintariak ebazkizuna ondo ezagutu bear dute bere eragipenak jokuan jartzeko. Gaur gure arteko giroa, zoritxarrez, ortarako aurka dugu ia zearo; bai gayezko asmoak nagusi diralako, bai gure Erri'aren bearra berarena bezela artzeko gizalagunak gutxi ditugulako. Orrengatik ere bide ortan yarduteko bearra aundi-aundia dugu, ta lenbailen bertan ari-izateko ere.

Asieran aipatu ditugun asmoak, neurri orokarrean onartze-koak baldin badira, beraz euzkal-neurrian ere, gure euzkal-bearretarako gero nabari-erazi ditugun beste bi bide bereziak ditugu gure-gureak bezela onartzeko. Eta orrela euzkal-irazkintzarako ontzat artzeko bideak agertzen zaizkigu gureak, ego-ki ta ezinbestekoan bezela. Geron ustez ba-dago agertutako asmoetan lan bearra burutzeko jokabidea, gure Erri'aren bi-ziaren alde bipilki yarduteko.

Urtubia